



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**OGASUNA, BARNE ANTOLAKUNTZA, PERTSONALA, KONTRATAZIOA,
SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA MERKATARITZA BATZORDEAREN
IRIZPENA**

2017 URTALDIRAKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA

1.- AURREKARIAK

1.1. Ogasuna, barne antolakuntza, pertsonala, kontratazioa, sustapen ekonomikoa eta merkataritza batzordean, 2016ko urriaren 5ean ospatu zen horretan, besteak beste, 2017rako ordenantza fiskalen irizpideak eman ziren

2017ko ordenantza fiskalak

Ana Azkoitia:

Aurrena bi zuzenketa proposatzen dira ordenantzetan:

1.- Obren gaineko zergan, irisgarritasun baldintzak hobetzeko egiten diren obrak gaur egun ehuneko 95eko hoberia dute baina hau ez dator bat Foru Araurekin. Bertan gehiengoz ehuneko 90eko hoberia edukiko dutela azaltzen da. Ondorioz gure ordenantzetan lan hauen hoberia ehuneko 90ekoa izan behar du.

2.-Zineko tasetan oraindik ere Elkarguneko bazkidea izateagatik hoberia azaltzen da. Hau aspaldi ezabatu zen baina ordenantzetan oraindik azaltzen da. Hau ezabatu behar da.

Honez gain hurren zinea ez dago aurreikusirik ordenantzetan eta hau ere jarri behar da, ikusleren eguna eta zineforumeekin batera.

3.- bide publikoa igogailuak ipinita okupatzeagatik ordaindu beharreko tasan beste egoera batzuk ere sartzea komeni da eta horregatik testua aldatzea proposatzen da:

"jabari publikoa igogailuak, elemento finkoak edo antzekoak ipinita okupatzeagatik ordaindu beharreko tasa".

Hurrengo urteko ordenantzetako aldaketa hauek proposatzen dira:

1.- Ibilgailuen zergan ibilgailu hibridoentzat ez zegoen hobaririk. 2017rako hibridoak %50^a eta elektrikoak %70^a edukitzea proposatzen da.

2.- Beste zergak:

Taula banatu da. Hor ikusten da oraindik dexentek ez dutela OHZren tipoak onartu. Onartu dutenen artean kasu batzuetan igoera oso nabarmenak onartu dituzte, adb. Bergararen industrial tipoa %27an igo da.

Gure asmoa da irizpide moduan datorren urtean berriz ere taulan erdialdean mantentzea. Ikusiko da non gelditzen garen.

3.-Zaborrak:

Eman den dokumentazioan kostea azaltzen da. 2015ean estaldura %75ekoa da. 2016ko datuetan orain arte Mankomunitateari egin zaion ekarpena eta erabili duen gerakina azaltzen da baina gure susmoa da gehiago erabiliko dela.

GHKak tratamendu gastuak igo egin ditu eta horregatik pentsatzen dugu gerakina kopuru handiagoan erabiliko duela Mankomunitateak. Aurreikuspenetan jasotako tona kopurua gutxitu egin zuten. Urte osorako aurrekontuan Azkoitiarentzat organiko 400 tona aurreikusi zituzten eta hilerio Azkoitiak 90 tona organiko botatzen ditu. Honegatik ari gara gerakina erabiltzen.

Laminazioagatik guretzat orain merkeagoa da errefusa botatzea organikoa botatzea baino.

Esan digute sistema aldatzarekin ari direla eta datuak emango dizkigutela. Sistema berriarekin jasotzea zerbait merkeagoa da baina tratamendu gastuak hainbeste igo direnez bai iruditzen zaigu kosteak gora egingo dutela.

Honegatik 2017rako aurtengoa gutxienez jarri da kosteetan, baina seguruenik gastua igotzen joango denez gure tasak ere %3an igotzea proposatzen dugu.

4.-Ura:

Pasa den urteko irizpide berdina da. 2020. Urtera begira bi tarifak egokitzea.

Kontuan eduki behar da pasa den Urtean Gipuzkoako Urakak ordenantzak lantzeko eman zizkiguten datuak eta bukaeran onartu zituztenak desberdinak izan zirela.

Ana:



**AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

Onartu dituztenak dexente merkeagoak dira bidalitakoak baino eta horregatik gure diferentziak ez dira hainbeste murriztu.

Ainara:

Zergatik onartzen ditugu tarifa desberdinak?

Ana:

2009an hitzarmena sinatu zen Udala eta konsortzioaren artean eta uraren ziklo integrala konsortzioaren esku utzi zen. Une hartan tarifak oso oso desberdinak ziren eta Udalak konsortzioarenak onartuz gero bilketan oso jaitsiera fuertea edukiko zuen. HONegatik azterketa ekonomikoa egin zen eta 2020. bitartean bien arteko tarifak parekidetasunera helduko zirela ondorioztu zen.

Aurreneko urteetan Udalaren tarifak, guztiak bat, portzentaje batean jaitsi ziren baina gero ikusi zen tarifa honetan atal oso desberdin eta ugariak daudenez (tarifa fijoak, kontsumoa, tramoak, ura, estolderia, kanona...) banan banan azterketa sakonagoa behar zuela eta azken urte hauetan irizpidetzat hartu da atalak banaka hartuz konsortzioaren tarifetara egokitzea.

Ana Azkoitia:

2017. urterako ez etxetiarrek orokorrean %6,60ko jaitsiera eta etxetiarrek orokorrean %2,37ko igoera. Etxetiarrentan fijoak jaitsi egiten da eta kontsumoa igo.

5.-Euskal Herriko KPIa abuztuan 0,1 ekoa izan da baina guk berdin mantentzea proposatzen dugu.

6.- Ibilgailuen gaineko zergan familia ugarietzat hobaria jartzeko foru arauak aukera ematen du. Gure proposamena da familia ugari arruntek %50eko hobaria eta familia ugari bereziak %75ekoa. Gero ibilgailuaren zaldi fiskalen arabera portzentaje hauek murrizten joan daitezke: gero eta potentzia handiagoa hobari txikiagoa.

HObaria soilik familia bakoitzeko ibilgailu bati ezarriko litzaiokie eta ez litzateke bateragarria izango beste hobari batekin.

7.-Zinean ere familia ugarietzat proposatzen dugu 5 euro orde 4 ordaintzea eta 3 orde 2,5 ordaintzea.

1.2. Ogasuna, barne antolakuntza, pertsonala, kontratazioa, sustapen ekonomikoa eta merkataritza batzordean, 2016ko urriaren 11an ospatu zen horretan, besteak beste, 2017rako ordenantza fiskalen irizpideak eman ziren

1.3.Ogasun, langile, barne antolamendu eta kontratazioaren batzordean, 2016ko urriaren 20an ospatu zen horretan eta 2017rako ordenantza fiskalen irizpenak onartu ziren .

ONARRI JURIDIKOAK ETA EKONOMIKOAK

1.- ORDENANTZA FISKALA

Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, 7. artikuluan ezartzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalerriei dagokiela, Foru Arau honek ezarritakoaren esparruan, bere zergak kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, eta ekintza horiek egiterakoan ez dira kaltetuko udal zergak arautzen dituzten foru arauetan eta horiek garatzeko ezarritako gainerako xedapenetan ezartzen diren espezialitateak, Zergen Foru Arau Orokorrean eta hau garatzeko ezarritako gainerako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera.

Beren ordenantza fiskalen bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriek, aurreko atalean aipatzen den araudia bakoitzaren barne antolamenduaren eta funtzionamenduaren arabera egokitu ahal izango dute, eta egokitzen hori ezingo da araudi horretan jasotako eduki materialaren aurkakoa izan.

2.- ORDENANTZA FISKALEN EDUKIA:

Ordenantza fiskalek, gutxienez, ondokoa jasoko dute:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

A/ Egintza ezargarri, subjektu pasibo, erantzule, salbuespen, murriztapen eta hobari, oinarri zergagarri eta likidagarri, karga mota edo tributu kuota, epealdi ezargarri eta sortzapenaren zehaztapena.

B/ Aitorpen eta sarrera erregimenak.

C/ Bere ezarpenaren onspen eta hasiera datak.

Ordenantza Fiskal hauen onspenerako akordioak, dagozkien tributuak ezartzeko akordioekin batera hartu beharko dira.

Aipatu ordenantzak aldatzeko akordioek, ukituriko arauen idazketa berria, beren onspen datak eta beren ezarpen hasiera jaso beharko dituzte.

3.- 2017ko tasen azterketa ekonomikoa

Honi buruz Udal Kontu hartzaileak honako txostena egin du:

2016KO TASEN AZTERKETA EKONOMIKOA

Zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta jarduera administratiboak burutzeagatik aplikatzen diren tasak

Zerbitzuak eskaintzeagatik eta jarduera administratiboak egiteagatik aplikatzen diren tasei dagokienez, azterketa ekonomiko hau 2015eko ekitaldiari dagozkion datuekin egin da, likidatutako azken ekitaldia baita, eta Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 24.2. artikulua xedatutakoa bete dela kreditatzeko ondorioetarako egin da. Artikulu horretan ondokoa ezartzen da: zerbitzu bat eskaintzeagatik edo jarduera bat burutzeagatik aplikatzen diren tasen zenbatekoa ezingo da, guztira, zerbitzu edo jarduera horren benetako kostua edo aurreikus daitekeen kostua baino handiagoa, edo bestela, jasotako zerbitzuaren balioa baino handiagoa izango.

2017rako tasetarako irizpen orokorra 2016ko prezioak mantentzea da, Zaborrak eta uraren, estolderiaren eta azpiegitura finantzatzeko kanonaren tasak izan ezik.

Uraren, estolderiaren, azpiegitura finantzatzeko kanonaren tasetan biztanleka fakturatzeko jarraituko da, hau da etxebizitza bakoitzean bizi diren biztanle kopuruaren arabera tarifa ezberdina ezarriko da.

Honez gain, Udalaren tarifak eta konsortzioaren oso desberdinak izanik, bien arteko oreka proposatu zen pasa den urtean eta 2020.urtean parekatzea. Aldaketa honek etxetiarretan ehuneko 2,37ko igoera eta ez etxetiarretan ehuneko 6,60ko jeitsiera eragingo du.

Zerbitzu bakoitza eskaintzeak dakarren kostua, ondoko puntuetan oinarrituz zehazten da:

309/2016 Foru Aginduan, ekaineko 10ekoan, Gipuzkoako toki entitateek emandako zerbitzuen kostu efektiboa kalkulatzeko irizpideak eta epeak ezartzen dituenak.

- Kostu zuzenak: Aipatu foru aginduaren 4. Artikuluan xedatutakoaren arabera
- Zeharkako gastuak eta gastu horiek zerbitzuei egozteak: Aipatu foru aginduaren 4. Artikuluan xedatutakoaren arabera
- Egituraren kostu zentroen banaketa: Aipatu foru aginduaren 5.2. Artikuluan xedatutakoaren arabera. Aurreko ataletan adierazitako banaketa egin ondoren, entitatearen gastu orokorrak, 9. Gastu arloan jasoak, proportzionalki egotziko zaizkio Zerbitzu bakoitzari, bere gastu bolumenaren arabera.

- Amortizazioak: Dagokion ekitaldian eta aurrekoetan egindako inbertsioa amortizatzeagati sortutako gastuak, ibilgetuen balio-bizitzaren arabera kalkulatuak, kontabilitate alorreko araudiari jarraituz toki entitateak aplikatzen dituen irizpideak kontuan hartuta.

Azpiegiturek eta balio bizitza mugagabea duten toki entitatearen ondareko ondasunek ez dute edukiko amortizazio gasturik lotuta.

Horrez gainera, ibilgetu inmaterial edo ukiezina amortizatzeagatik sortutako gastuak sartuko dira, baldin eta zerbitzuarekin zuzenean erlazionatuta badaude.

Amortizazio horiek zerbitzua eskaintzearen kostuan egozten dira. Adierazitako irizpideen arabera, ondoko eranskinak egin dira:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3.1 ZABORRAK:ZABORRAK JASOTZEKO ZERBITZUA ESKAINTZEAGATIK APLIKATZEN DEN TASA

KONTZEPTUA	2015eKO KOSTUAK	AURREIKUS 2016 AMAIERAN	2017RAKO AURREIK AURREK	INCREMENTO
Edukiontzia konpontzea	1.577,18	4.761,15	4.856,37	2,00
Edukiontzien garraio zerbitzua	0,00	0,00	0,00	
Lapatx hondakindegian botatzea	15.000,00	10.971,21	11.190,63	2,00
Zaborrak jasotzeko zerbitzu erkidetua	1.129.708,58	1.168.785,64	1.294.392,44	10,75
II Kapituluko gastua	25.016,00	0,00	0,00	
Costos procedentes de Reclasificaciones	29.493,02	29.905,92	30.324,61	1,40
Zentro medialen banaketa	24.808,98	25.156,30	25.508,49	1,40
Egitura zentroyen banaketa	34.289,00	34.769,05	35.255,81	1,40
Amortizaziotik datozen kostuak	10.446,00	10.446,00	10.446,00	0,00
Mankomunitateak gerakinerakin finantziatua	187.971,04	125.606,80	0,00	
GASTUAK GUZTIRA	1.456.732,62	1.410.402,07	1.411.974,35	0,11
BILDUTAKO DIRUA	1.098.333,97	1.103.888,76	1.137.005,42	3,00
ESTALDURA MAILA	75,40	78,27	80,53	

Mankomunitatearen ekarpena 2017rako une honetan ezin da jakin zenbatekoa izango den. Aurreikusi daiteke aurtengoa gutxienez izango dela.
Aurrekonturako finkatzen dutenean Mankomunitatekoek berriz ere estalduraren azterketa proposatzen da kontuhartzailetatik

2016.urterako tarifak %ko 3ko portzentajejan igotzea proposatzen da.

Honen zioa bi ardatzetan datza: aurrena Mankomunitateari egiten zaio ekarpena urtez urte igotzen doa 2010etik 2015era Bigarrenkoz, estaldura mantentzeko nahitaez tasaren igoera proposatzen da.

Errentaren eta etxeko kideen araberrako hobaria ere 2017.urtean indarrean dago.

3.2 KANPOSANTUA

KONTZEPTUA	2014KO KOSTUAK	2015EKO KOSTUAK	2016RAKO AURREIK AURREK	IGOERA
Langile gastuak		59.424,26	60.018,50	1,00
Hilerria kontserbatzea	67.770,46	2.479,44	2.504,23	1,00



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Energia elektrikoa Errauskailurako gas hornidura		2.875,05	2.903,80	1,00
Hilerriaren aseguruak		8,78	8,87	1,00
Amortizazioak	20.305,29	6.978,00	6.978,00	0,00
Zentro medialen banaketa	1.231,07	2.124,74	2.124,74	0,00
Egitura zentroyen banaketa	15.463,88	26.407,00	26.671,07	1,00
KOSTUAK GUZTIRA LORTU DEN EDO AURREIKUSTEN DEN BILKETA	104.770,70	106.876,47	107.854,21	0,91
ESTALDURA MAILA	56,93	61,49	52,69	

**3.3. BAZTARTXO ARETOAN UDAL ZERBITZUAK EMATEKO EDO UDAL JARDUERAK
EGITEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA:**

Tasa honetan Sarrera murriztua haur zinemarentzat ere proposatzen da.

Honez gain familia ugariak 2017. Urtean tarifa bereziak edukiko dituzte. Tarifa hauek ezartzeko Sarrera erosterakoan familia ugariko titulua aurkeztu beharko da.

Era honetara arautzen dira 2017. Urterako Baztartxoko tasak:

**ZERBITZUAK EMAN EDO JARDUERAK BURUTZEA BAZTARTXO
ARETOAN**

ZINEMA

	PREZIO ARRUNTA	PREZIOA FAMILIA UGARIANTZAT
Sarrera orokorra	5€	4€
Ikusleren eguna, haur zinema eta zineforum	3€	2,50€

ZUZENEKO IKUSKIZUNAK

	PREZIO ARRUNTA	PREZIOA FAMILIA UGARIANTZAT
Profesionalen ikuskizunetarako, amateurren ikuskizunetarako edo hirugarrenek antolatutako ikuskizunetarako sarreraren prezioa, kopuru hauen artean:	0-30€	0-30€
10 sarrerako bonoa	30€	30€



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Bonoaren erabilpena pertsonala da eta ezin da eskualdatu.

Erabilpen data: 2017/12/31 arte

Ezingo da umeen zinema emanaldietan erabili

Familia ugarien prezio murriztua ezartzeko, familia ugariako indarrean dagoen titulua aurkeztu beharko da.

Udal jabego publikoaren erabilera mugatua edo aprobetxamendu bereziagatik aplikatzen diren tasak

Udal jabego publikoaren erabilera mugatua edo aprobetxamendu bereziagatik aplikatzen diren tasei dagokienez, azterketa 2010ko ekitaldiari dagozkion prezioekin egin da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 24.1. artikulua xedatutakoaren arabera. Artikulu honek ondokoa ezartzen du: udal jabego publikoaren erabilera mugatua edo aprobetxamendu bereziagatik aplikatzen diren tasen zenbatekoa honela finkatuko da: a) Orokorrean, erreferentzia gisa hartuz erabilera edo aprobetxamendu horretatik eratorritako erabilgarritasunak merkatuan izango lukeen balioa, ukitutako ondasunak jabari publikoak izango ez balira.

Toki entitateari dagokion kontraprestazioa da, partikular batek jabari publikoko lursailak era mugatuan erabiltzea. Okupazioaren merkatuko balioa edo eratorritako erabilgarritasuna lortzeko, antzeko ezaugarriak eta egoera bera duen lursail bat eskuratzeko beharrezkoa den kapitalaren ordainketak ekarriko lukeen kostu finantzarioa kalkulatu behar da, eta hori lursail horrek merkatuan duen alokairu prezioarekin bat etorriko da. Horrela lortutako balioa aukera koefiziente batzuk aplikatuz zuzentzen da, obra materialekin egindako okupazioa zehatzen dutenak, jabari publikoaren erabiltzailearen mesederako direlako soilik, eta gainerako herritarren kalterako, eta gainerako herritarrei balio erantsiren bat eskaintzen dieten erabilera mugatuen alde egiten dute.

Bestalde, okupazio horien kudeaketak duen kostua aztertuz, udal langileen arduraldiaren ikuspegitik eta egitura eta elementu orokorren erabileraren ikuspegitik, ondorioztatzen da, tasaren zenbatekoaren % 15 kontzeptu hori estaltzera bideratuko litzatekeela, eta gainerako % 85, bat etorriko litzatekeela jabari publikoaren erabilera mugatuarengatik konpentsazioarekin. Hori hala da salbuespen batekin: "Obra materialekin, hesiekin eta abarrekin bide publikoa okupatzeagatik aplikatzen den tasa". Honek udaltzainei egunero arduraldi handia dakarkie, eta ondorioz, kasu honetan, beharrezkoa da tasaren % 30 zerbitzu horren kudeaketa gastua ordaintzeko erabiltzea. Bestalde, "Merkatuaren tasaren" kasuan, zerbitzu eta garbiketa langileei arduraldi handia dakarkie eta % 20 bideratzen da horretarako. Halaber, zirkulazio erreia mozteagatik aplikatzen den tasa ere salbuesten da arau orokorretik. Tasa hori kalkulatzeko Udaltzaingoaren eguneko eta m2-ko kostua gehitzen da: 4 ordu/eguneko; 2010eko ordu kostua: 18,37.

Adierazitako irizpideen arabera, ondoko eranskina egin da:

JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA MUGATUARENGATIK APLIKATZEN DEN TASA:

	MAILAK	TARIFA 2010 ORDEN.	DENBORA	UNITATEA M2	PREZIOA M2 EGUNA
Pasabidea duen ibilg. sarrera	A) IBILGAILU 1	53,54	urtea	6	0,02
	B) 2 IBILGAILU	80,66	urtea	6	0,04
	C) 3 IBILGAILU	100,44	urtea	6	0,05
	D) 4 ETA 10 IBILGAILU ARTEAN	190,19	urtea	6	0,09
	E) 11 ETA 30 IBILGAILU ARTEAN	272,17	urtea	6	0,12
	F) 30 IBILGAILUTIK GORA	355,90	urtea	6	0,16
Pasabiderik gabeko ibilg. sarrera					



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

	A) IBILGAILU 1	40,78	urtea	6	0,02
	B) 2 IBILGAILU	57,57	urtea	6	0,03
	C) 3 IBILGAILU	73,52	urtea	6	0,03
	D) 4 ETA 10 IBILGAILU ARTEAN	123,19	urtea	6	0,06
	E) 11 ETA 30 IBILGAILU ARTEAN	165,07	urtea	6	0,08
	F) 30 IBILGAILUTIK GORA	223,66	urtea	6	0,10
Zamalanak egiteko espazio erreserba		38,70	urtea	6	0,02
Lurzorua, zorupea edo hegalkinak andel eta tangekin okupatzea		49,55	urtea	1	0,14
Mahaiak, mahaitxoak		76,48	urtea	4	0,05
Arroilak edo lubakiak irekitzea	Ez da zeharbideetan gertatzen	3,23	eguna	2	1,62
	Zeharbideetan gertatzen bada	6,46	eguna	2	3,23
Salmenta ibiltariaren merkatua		0,94	eguna	1	0,94
Bide publikoa hesi, aldamiorekin okupatzea		0,57	eguna	1	0,57
Bide publikoa obra hondakinen edukiontziekin okupatzea		3,51	eguna	4	0,88
Zirkulazio erreia moztea		91,47	eguna	20,8	4,39
Bide publikoa negozioa osatzen duen zati moduan erabiltzea		0,28	eguna	1	0,28
Bide publikoa igogailuekin okupatzea		0,03	eguna	1	0,03

URTEKO ALOKAIRUA. JABARI PUBLIKOKO ONDASUNAK ERABILTZEAREN BALIOA.

	KALEEN MAILA			
	1.	2.	3.	Bakarra
Merkataritza lokal baten alokairua, m2-ko prezioa	126,24	73,56	54,6	126,24
Merkataritza lokal baten alokairua hilabeteko, prezioa m2-ko	10,52	6,13	4,55	10,52
Merkataritza lokal baten alokairua eguneko, prezioa m2-ko	0,35	0,02	0,16	0,35

JABARI PUBLIKOAREN APROBETXAMENDU EDO ERABILERA MUGATUAREN MERKATUKO BALIOA

Kontzeptua	MAILAK	APROB. PREZIOA M2				Auk. koef.	ZUZEND. APROB. PREZIOA M2						
		Kaleen maila					Kaleen maila						
		1.	2.	3.	bakarra		1.	2.	3.	bakarra			
Pasabidea duen ibilg.													



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

sarrera								
	A) IBILGAILU 1			0,35	0,50			0,175
	B) 2 IBILGAILU			0,35	0,50			0,175
	C) 3 IBILGAILU			0,35	0,50			0,175
	D) 4 ETA 10 IBILGAILU ARTEAN			0,35	0,50			0,175
	E) 11 ETA 30 IBILGAILU ARTEAN			0,35	0,50			0,175
	F) 30 IBILGAILUTIK GORA			0,35	0,50			0,175
Pasabiderik gabeko ibilg. sarrera								
	A) IBILGAILU 1			0,35	0,50			0,175
	B) 2 IBILGAILU			0,35	0,50			0,175
	C) 3 IBILGAILU			0,35	0,50			0,175
	D) 4 ETA 10 IBILGAILU ARTEAN			0,35	0,50			0,175
	E) 11 ETA 30 IBILGAILU ARTEAN			0,35	0,50			0,175
	F) 30 IBILGAILUTIK GORA			0,35	0,50			0,175
Zamalanak egiteko espazio erreserba				0,35	0,50			0,175
Lurzorua, zorupea edo hegalkinak andel eta tangekin okupatzea				0,35	1,20			0,42
Mahaiak, mahaitxoak				0,35	0,70			0,245
Arroilak edo lubakiak irekitzea								
	Ez da zeharbideetan gertatzen			0,35	1,20			0,42
	Zeharbideetan gertatzen bada			0,35	1,20			0,42
Salmenta ibiltariaren merkatua				0,35	1,20			0,42
Bide publikoa hesi, aldamiorekin okupatzea				0,35	1,40			0,49
Bide publikoa obra hondakinen edukiontziekin okupatzea				0,35	1,60			0,56
Zirkulazio erreia moztea				0,35	1,60			0,56
Bide publikoa negozioa osatzen duen zati moduan erabiltzea				0,35	1,20			0,42
Bide publikoa igogailuekin okupatzea				0,35				0,35



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA MUGATUAREN TASEN KOSTUA

KONTZEPTUA	MAILAK	KALEEN MAILA	ORDEN. TARIFA	APROB. BALIOA	JARD. BALIOA	BALIOA GUZTIRA
Pasabidea duen ibilg. sarrera	A) IBILGAILU 1		0,02	0,175	0,026	0,201
	B) 2 IBILGAILU		0,04	0,175	0,026	0,201
	C) 3 IBILGAILU		0,05	0,175	0,026	0,201
	D) 4 ETA 10 IBILGAILU ARTEAN		0,09	0,175	0,026	0,201
	E) 11 ETA 30 IBILGAILU ARTEAN		0,12	0,175	0,026	0,201
	F) 30 IBILGAILUTIK GORA		0,16	0,175	0,026	0,201
	Pasabiderik gabeko ibilg. sarrera	A) IBILGAILU 1		0,02	0,175	0,026
B) 2 IBILGAILU			0,03	0,175	0,026	0,201
C) 3 IBILGAILU			0,03	0,175	0,026	0,201
D) 4 ETA 10 IBILGAILU ARTEAN			0,06	0,175	0,026	0,201
E) 11 ETA 30 IBILGAILU ARTEAN			0,08	0,175	0,026	0,201
F) 30 IBILGAILUTIK GORA			0,10	0,175	0,026	0,201
Zamalanak egiteko espazio erreserba				0,02	0,175	0,026
Lurzorua, zorupea edo hegalkinak andel eta tangekin okupatzea			0,14	0,42	0,063	0,483
Mahaiak, mahaitxoak			0,05	0,245	0,049	0,294
Arroilak edo lubakiak irekitzea	Ez da zeharbideetan gertatzen		0,54	0,42	0,126	0,546
	Zeharbideetan gertatzen bada		0,63	0,42	0,210	0,630
Salmenta ibiltariaren merkatua			0,94	0,42	0,168	0,588
					GARBIKETA M2 ETA EGUNEKO	1,620
Bide publikoa hesi, aldamiokin okupatzea			0,57	0,49	0,147	2,208 0,637
Bide publikoa obra hondakinen edukiontziekin okupatzea			0,88	0,56	0,308	0,868
Zirkulazio erreia moztea			4,39	0,56	0,308	0,868



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

				UDALTAING. KOSTUA	3,530
Bide publikoa negozioa osatzen duen zati moduan erabiltzea	0,28	0,42	0,126		4,398
Bide publikoa igogailuekin okupatzea	0,03	0,35			0,350

3.4. UDAL JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA:

Ordenantza honen 6. Artikuluak honako hau jasotzen du:

6. artikulua.

1. Erabilpenak edo ustiapenak udalerriko ondasunak kaltetzeko arriskua sortzen duenean, udal-administrazioak gordailu bat eskatuko du kalteak ordaintzeko beharrezko irizten duen zenbatekoarekin. Horrez gain, erabilerari edo ustiapenari dagokion tasa ordaindu beharko da.

2. Udal-administrazioak kaltetutako ondasunak lehengoratzeko edo konpontzeko eskatuko du, eta kalteak konponezinak baldin badira, haien balioa itzultzeko.

Udaleko bulego Teknikoak eskatu beharreko gordailuaren kopurua zehazteko asmoz honako proposamena egin du 6. Artikuluarentzat:

6. artikulua.-

1. Erabilera publiko lokaleko lursailetan –baita errepide eta gainerako bide publiko lokaletan ere– edonolako zangak, zundaketak edo zuloak ireki aurretik, kaineriak, hodieriak edo bestelako instalazioak ezartzeko eta konpontzeko, edota bide publikoko galtzadan edo espaloietan inolako konponketak egiten hasi aurretik, Udal Administrazioak fidantza bat ezartzea exijituko du, jabari publikoa bere jatorrizko egoerara ekartzeko edota egindako obrek sortutako kalteei aurre egin ahal izateko.

2. Fidantza hori jartzerakoan, honakoak hartuko dira kontuan:

- 1) Fidantza bakoitzak, soil-soilik obra bakar bati dagozkion betebeharrak bermatuko ditu.
- 2) Obra baterako lizentzia entitate bat baino gehiagok eskatzen badute, solidarioki edo mankomunatuta, fidantza hori bat eta bakarra izango da entitate guztientzako.
- 3) Fidantza dirutan edo banku-abalaren bitartez jar daiteke.

3. Fidantzaren zenbatekoa, segidako taulan adierazitako epigrafeen zenbakietan ezarritako kontzeptu eta zenbatekoen arabera kalkulatu da.

ZANGAK, ZUNDAKETAK EDO ZULOAK IREKITZEKO GORDAILUEN TAULA

ZANGAK, ZUNDAKETAK EDO ZULOAK IREKITZEKO GORDAILUAK			€/m ²
Metro karratua bere onera ekartzearen edo eraikitzearen kostua (zanga, zundaketa edo zuloaren zabalera bider luze bakoitza) €/m ²	GUZTIRA	BEZ % 21	GUZTIRA, BEZ barne
ASFALTO AGLOMERATUZKO ZOLADURA	172,00	36,12	208,12
HORMIGOIZKO HARRI BALDOSAZ EGINDAKO ZOLADURA	179,00	37,59	216,59
GRANICEM HORMIGOIZKO BALDOSAZ EGINDAKO ZOLADURA	197,00	41,37	238,37
GRANITO BALDOSAZ EGINDAKO ZOLADURA	257,00	53,97	310,97



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

HORMIGOIZKO GALTZADA-HARRIZ EGINDAKO ZOLADURA	197,00	41,37	238,37
LORATEGI ITXURAKO EREMUA	125,00	26,25	151,25

4. Obrak bukatu arte fidantza ez da itzuliko; hau da, fidantza ezartzearen helburua bete arte, ez da itzuliko.

5. Behin obra bukatuta, eta eskatzaileak obraren lizentzian eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu ondoren, udal zerbitzu teknikoek obra ikuskatuko dute. Eta obra hartu ondoren, hala egokituz gero, kasuan kasuko akta izenpetuko dute. Obra hartu den egunetik bi hilabete igarotakoan, jarritako fidantza itzuli egingo da. Horretarako, ordea, eskatzaileak egindako obraren aurrekontu osoaren % 5eko abala ipini beharko du, berme-epaia bete arte. Azkeneko bermealdi hori 10 hilabetekoa izango da.

6. Bermealdi horretan ez bada antzeman fidantza jarri duenari lepora dakioken akatsik, edota obra tazituki hartu zen egunetik hasita urtebete igarotzean, hasieran jarritako fidantza edo aipatutako abal hori itzuli egingo da.

7. Baldin eta eskatzaileak jabari publikoa ez badu bere jatorrizko egoerara itzuli, edota sortutako kalteak ez baditu konpondu, Udalak kasuan kasuko egikaritze-agindua emango du; eta beharrezkoa bada, ordezko izaeraz egikarituko du, interesatuaren kontura. Azkeneko kasu horretan, fidantzaren zenbatekoa obra hori egikaritzeko erabiliko da.

3.5. BIDE PUBLIKOA IGOGAILUAK IPINITA OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

Tasa hau JABARI PUBLIKOA IGOGAILUAK, ELEMENTO FINKOAK EDO ANTZEKOAK IPINITA OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA izatea proposatzen da .

Azkoitia, 2016ko urriaren 13an
Kontuhartzaileak

4.1 IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

6. Artikuluak zerga honetan arautzen diren hobariak zehazten dira. 2017. urterako motor elektrikoaren hobaria handitu egiten da %70era eta motor hibridoak dituzten ibilgailuentzat %50eko hobaria jasotzea proposatzen da. Era honetara jasoko litzateke 6.1 artikuluan xedaturiko hobaria:

6.1. %70eko hobaria ezartzen da motor elektrikoa duten ibilgailuen kasuan eta %50eko hobaria motor hibridoak duten ibilgailuak.

Honez gain hobari berria arautzen da 2017. Urterako, hirugarren hobaria hain zuzen.

Uztailaren 5eko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren 14/1989 Foru Arauaren 4. artikulua, 5.d) atalak honela dio:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

5.11 Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriek honako hobariak arautu ahal izango dituzte zerga kuotaren gainean, koefizienteak aplikatzeagatik gehitutako kuota izan edo ez:

d) 100eko 90erainoko hobaria bost plaza edo gehiago dituen ibilgailu turismo bakar baten alde, baldin eta horren titularrak familiako kide bat bada, familia hori ugarizat hartzen denean indarrean dagoen legeriaren arabera.

Foru arauak bide hau zabaldu duenez Azkoitiko Udalak 2017.urterako familia ugariarentzat hobari berria jasotzea proposatzen du:

6.3. Zergaren kuotan 100eko 75 arteko hobaria ezartzen da, bost plaza edo gehiago dituen eta 16 zaldi fiskaletik beherako potentzia duen turismo bakar baterako familian, baldin eta ibilgailuaren titularrak, indarreko legeriak familia ugariarentzat jotzen duen familia bateko kidea bada.

Hobariaren ehunekoa zergaren sortzapen unean erabakiko da, legez aplikatu daitezkeen familia ugariaren kategoriaren arabera, berori behar bezala egiaztatuta betiere, eta turismo familiarraren potentzia fiskala aintzat hartuta, honako taula honetan adierazitakoaren arabera:

POTENTZIA FISKALA	KATEGORIA BEREZIKO FAMILIA	KATEGORIA OROKORREKO FAMILIA
12 zaldi fiskaletik beherakoa	% 75	% 50
12tik 13,99ra bitartekoa	% 65	% 40
14tik 15,99ra bitartekoa	% 55	% 30

Hobariak familia ugariaren txartelaren iraungipen-epeak agintzen duen iraupena izango du gehienez, eta familia ugari bakoitzeko, ibilgailu bakar batek jasoko du hobaria.

Hobaria, ordainagiriak borondatez ordaintzeko epea bukatu arte eskatu ahal izango da. Geroztik egiten diren eskaerak, eskaera egin den zergaldiaren hurrengo zergalditik aurrera izango dituzte ondorioak.

Eskaera hau ez da bateragarria izango, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zergan ibilgailu berari egindako beste ezen hobari fiskalekin.

4.2 ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

Zerga honetan 2017.urterako hobarietan zuzenketa proposatzen da, zehazki 22.h/ atalean.

Orain arte irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak hobetzeko egiten diren lanak ehuneko 95eko hobaria izango dutela arautu da.

Uztailaren 5eko Eraikuntza Instalazio eta Obren gaineko Zergaren 15/1989 FORU ARAUAK 5. E)Artikuluan Udalerriak arautu ditzaketen hobariak zehaztean honela dio:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

5. artikulua.

1. Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriek honako hobariak arautu ahal izango dituzte beren ordenantza fiskaletan zerga kuotaren gainean: :

e) 100eko 90era bitarteko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Ondorioz, zuzenketa proposatzen da Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen Udal ordenantza fiskalaren 22.h) atalean. Orain arte %95eko hobaria duten lanak %90eko hobaria izatera pasako dira Era honetara jasoko da:

H) Ehuneko 90eko hobaria izango dute desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun-eta bizigarritasun-baldintzak hobetzeko egiten diren eraikuntzek, instalazioek eta obrek.

Beraz, Ogasuna, barne antolakuntza, pertsonala, kontratazioa, sustapen ekonomikoa eta merkataritza batzordeak, 2016ko Urriaren 20an eginiko bileran honako irizpena proposatzen dio Udal Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENENGOA.- 2017RAKO Ordenantza fiskalak aldatzea, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraina edukiz, aldatutako testuak honela geratzen direlarik:

1.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILIGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTA ZEHAZTEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA

BAT - Aldaketak sartzen dira Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 6.artikuluan, eta honela geratzen da idatzita:

VI.- KAPITULUA: Hobariak

6. Artikulua

6.1. %70eko hobaria ezartzen da motor elektrikoa duten ibilgailuen kasuan eta %50eko hobaria motor hibridoa duten ibilgailuak.

6.2 .100eko 100era bitarteko hobaria, ibilgailu historikoetarako edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita bost urteko antzinatasuna duten ibilgailuetarako. Fabrikazio eguna ez bada ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.

6.3. *Zergaren kuotan 100eko 75 arteko hobaria ezartzen da, bost plaza edo gehiago dituen eta 16 zaldi fiskaletik beherako potentzia duen turismo bakar baterako familian, baldin eta ibilgailuaren titularra, indarreko legeriak familia ugaritzat jotzen duen familia bateko kidea bada.*



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Hobariaren ehunekoa zergaren sortzapen unean erabakiko da, legez aplikatu daitezkeen familia ugariaren kategoriaren arabera, berori behar bezala egiaztatuta betiere, eta turismo familiarraren potentzia fiskala aintzat hartuta, honako taula honetan adierazitakoaren arabera:

POTENTZIA FISKALA	KATEGORIA BEREZIKO FAMILIA	KATEGORIA OROKORREKO FAMILIA
12 zaldi fiskaletik beherakoa	% 75	% 50
12tik 13,99ra bitartekoa	% 65	% 40
14tik 15,99ra bitartekoa	% 55	% 30

Hobariak familia ugariaren txartelaren iraungipen-epeak agintzen duen iraupena izango du gehienez, eta familia ugari bakoitzeko, ibilgailu bakar batek jasoko du hobaria.

Eskaera hau ez da bateragarria izango, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zergan ibilgailu berari egindako beste ezen hobari fiskalekin.

Artikulu honetan arauturiko hobarien eskaerak ziurtagiriak kobartzeko borondatezko epea amaitu arte egin ahal izango dira. Geroago egiten diren eskaerek eragina izango dute eskaera egin den zergaldiaren hurrengo zergalditik aurrera.

Honez gain, atal honetan jasotako hobariak onartzeko Udal zerga-bilketan eskatzaileak ez du zorrik eduki behar.

2.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

BI- Aldaketak sartzen dira Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 22.artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

XI. HOBARIAK

22. artikulua.

A) Ehuneko 95 arteko hobaria izango dute interes bereziko edo udal-onurako adierazpena jaso duten eraikuntzek, instalazioek eta obrek. Adierazpen hori lortzeko, horiek guztiek hainbat baldintza bete beharko dituzte kultura, historia, arte edo enpleguaren sustapenaren arloetan. Udalbatza Osoa izango da adierazpena ematen duena, eta kide guztien gehiengo soilak onartua izango da, betiere subjektu pasiboak alde aurretik hala eskatzen badu. Kontuan hartuko da beti Udalbatza une bakoitzean zer egoera ekonomiko eta finantzariotan dagoen.

B) Ehuneko 90eko hobaria izango dute birgaitze integratuko obrek, baldin eta Eusko Jaurlaritzak kalifikazio hori eman badie.

C) Ehuneko 95 arteko hobaria izango du babes publikoko etxebizitzaren eraikuntzak.

D) Ehuneko 95eko hobaria emango zaie Azkoitia udalerriko baserrietan, eta baita nekazaritza eta abeltzaintzako zein baratzetako ustiapenari lotuta dauden gainerako eraikuntzetan ere, egiten diren eraikuntza- eta instalazio-lanei zein obrei, eta, baita ere, baserri-eraikin berriak nahiz nekazaritza eta abeltzaintzako edo baratzetako ustiapenari lotutako bestelako eraikuntza berriak egiteko lanei. Eragin horietarako, baserria izango da



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

nekazaritzako, abeltzaintzako edo baratzeko ustiapen bati lotuta dagoen bizitzeko eraikina, baldin eta lurzoruari eta hirigintzari buruzko legerian nahiz legeria hori garatzen duen araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Nolanahi ere, atal honetan arautzen den hobariak gozatu ahal izateko, ustiapena Nekazaritza Ustiapenen Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko da. Atal honetatik kanpo geratuko dira baso-ustiapen hutsak direnak.

E) Ehuneko 95eko hobaria izango dute etxebizitza eraikinetako teilatuak konpontzeko lanek eraikin horietako fatxadak birgaitzeko lanek.

F) Ehuneko 95eko hobaria izango dute denda txikietan egindako obrek, baldin eta denda horiek alde zaharrean kokatuta badaude.

G) Ehuneko 95eko hobaria izango dute beroa edo eguzki-energia elektrikoa aprobetxatzeko egiten diren eraikuntzek, instalazioek eta obrek. Hobari horiek eskuratzeko, eskumena duten administrazioek homologatutako biltzaileak izan beharko dituzte beroa sortzeko instalazioek.

H) **Ehuneko 90eko** hobaria izango dute desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun-eta bizigarritasun-baldintzak hobetzeko egiten diren eraikuntzek, instalazioek eta obrek.

I) Ehuneko 95eko hobaria izango dute Aizkibel 2 kaleko etxebizitzaren birgaitzeko obrak, sutearen ondorioz sortu direnak, hain zuzen.

Zergadunak hobari bat baino gehiago jasotzeko eskubidea duenean, hobari bakar bat emango zaio, betiere onuragarriena dena.

3.- UDAL-JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

HIRU.- Aldaketak sartzen dira tasa arautzen duen Ordenantza fiskalaren 6.artikuluaren, eta honela geratzen da idatzita:

6. artikulua.

1. Erabilpenak edo ustiapenak udalerriko ondasunak kaltetzeko arriskua sortzen duenean, udal-administrazioak gordailu bat eskatuko du kalteak ordaintzeko beharrezko irizten duen zenbatekoarekin. Horrez gain, erabilerari edo ustiapenari dagokion tasa ordaindu beharko da.

2. Udal-administrazioak kaltetutako ondasunak lehengoratzeko edo konpontzeko eskatuko du, eta kalteak konponezinak baldin badira, haien balioa itzultzeko.

Udaleko bulego Teknikoak eskatu beharreko gordailuaren kopurua zehazteko asmoz honako proposamena egin du 6. Artikuluarentzat:

6. artikulua.-

1. Erabilera publiko lokaleko lursailetan –baita errepide eta gainerako bide publiko lokaletan ere– edonolako zangak, zundaketak edo zuloak ireki aurretik, kaineriak, hodiariak edo bestelako instalazioak ezartzeko eta konpontzeko, edota bide publikoko galtzadan edo espaloietan inolako konponketak egiten hasi aurretik, Udal Administrazioak fidantza bat ezartzea exijituko du, jabari publikoa bere jatorrizko egoerara ekartzeko edota egindako obrek sortutako kalteei aurre egin ahal izateko.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2. Fidantza hori jartzerakoan, honakoak hartuko dira kontuan:
- 1) Fidantza bakoitzak, soil-soilik obra bakar bati dagozkion betebeharrak bermatuko ditu.
 - 2) Obra baterako lizentzia entitate bat baino gehiagok eskatzen badute, solidarioki edo mankomunituta, fidantza hori bat eta bakarra izango da entitate guztientzako.
 - 3) Fidantza dirutan edo banku-abalaren bitartez jar daiteke.
3. Fidantzaren zenbatekoa, segidako taulan adierazitako epigrafeen zenbakietan ezarritako kontzeptu eta zenbatekoen arabera kalkulatu da.

ZANGAK, ZUNDAKETAK EDO ZULOAK IREKITZEKO GORDAILUEN TAULA

ZANGAK, ZUNDAKETAK EDO ZULOAK IREKITZEKO GORDAILUAK			€/m ²
Metro karratua bere onera ekartzearen edo eraikitzearen kostua (zanga, zundaketa edo zuloaren zabalera bider luze bakoitza) €/m ²	GUZTIRA	BEZ % 21	GUZTIRA, BEZ barne
ASFALTO AGLOMERATUZKO ZOLADURA	172,00	36,12	208,12
HORMIGOIZKO HARRI BALDOSAZ EGINDAKO ZOLADURA	179,00	37,59	216,59
GRANICEM HORMIGOIZKO BALDOSAZ EGINDAKO ZOLADURA	197,00	41,37	238,37
GRANITO BALDOSAZ EGINDAKO ZOLADURA	257,00	53,97	310,97
HORMIGOIZKO GALTZADA-HARRIZ EGINDAKO ZOLADURA	197,00	41,37	238,37
LORATEGI ITXURAKO EREMUA	125,00	26,25	151,25

4. Obrak bukatu arte fidantza ez da itzuliko; hau da, fidantza ezartzearen helburua bete arte, ez da itzuliko.
5. Behin obra bukatuta, eta eskatzaileak obraren lizentzian eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu ondoren, udal zerbitzu teknikoek obra ikuskatuko dute. Eta obra hartu ondoren, hala egokituz gero, kasuan kasuko akta izenpetuko dute. Obra hartu den egunetik bi hilabete igarotakoan, jarritako fidantza itzuli egingo da. Horretarako, ordea, eskatzaileak egindako obraren aurrekontu osoaren % 5eko abala ipini beharko du, berme-epea bete arte. Azkeneko bermealdi hori 10 hilabetekoa izango da.
6. Bermealdi horretan ez bada antzeman fidantza jarri duenari lepora dakioken akatsik, edota obra tazituki hartu zen egunetik hasita urtebete igarotzean, hasieran jarritako fidantza edo aipatutako abal hori itzuli egingo da.
7. Baldin eta eskatzaileak jabari publikoa ez badu bere jatorrizko egoerara itzuli, edota sortutako kalteak ez baditu konpondu, Udalak kasuan kasuko egikaritze-agindua emango du; eta beharrezkoa bada, ordezko izaeraz egikarituko du, interesatuaren kontura. Azkeneko kasu horretan, fidantzaren zenbatekoa obra hori egikaritzeko erabiliko da.

LAU- Aldaketak sartzen dira tasa arautzen duen Ordenantza fiskalaren eranskinean, BIDE PUBLIKOA IGOGAILUAK IPINITA OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA okupazioen 17.atalean, eta honela geratzen da idatzita:

7.- JABARI PUBLIKOA IGOGAILUAK, ELEMENTO FINKOAK EDO ANTZEKOAK IPINITA OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

m²-ko eta eguneko0,03 €

4.- ZERBITZU PUBLIKOAK EMAN ETA JARDUERAK EGITEAGATIKO TASA ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA

BOST.- Aldaketak sartzen dira tasa arautzen duen Ordenantza fiskalaren eranskinean, hondakin solidoak eta geldoak biltzeko, tratatzeko eta aprobetxatzeko zerbitzuak atalean, eta honela geratzen da idatzita

5.1.HONDAKIN SOLIDOAK ETA GELDOAK BILTZEKO, TRATATZEKO ETA APROBETXATZEKO ZERBITZUAK.

HONDAKIN SOLIDOAK ETA GELDOAK BILTZEKO, TRATATZEKO ETA APROBETXATZEKO ZERBITZUAK.

a) Nahitaez hartzekoak diren hiri-hondakin solidoak edo horien parekoak direnak biltzeko, tratatzeko eta aprobetxatzeko edo deuseztatzekeo zerbitzua.

	ZERBITZUAK DESCRIPCIÓN DE LA TARIFA	URTEKO ZERGA 2017
A)	NAITAHEZ HARTZEKOAK DIREN HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK EDO HORIEN PAREKOAK DIRENAK BILTZEKO, TRATATZEKO ETA EPROBETXATZEKO EDO DEUSEZTATZEKO ZERBITZUA	
1	Bizileku partikularrak	163,47
2	Elikagai edo edari-denda, okindegi belar-denda, gozotegi eta antzekoan establezimendi komertzialak eta biltegiak	
2a	Elikagai edo edari-dendak- 100m ² -ra arte	305,09
2b	Elikagari edo edari-dendak- 101-250 m ²	437,73
2c	Elikagai edo edari-dendak- 251-500m ²	875,47
3	Fruta-dendak	437,73
4	Hotelak,ostatuak eta landetxeak	
4a	8 gelara arte	414,96
4b	9-16 gela	622,45
4c	16 gelatik gora	829,95
5	Egoitzak, aterpetxeak, udalekuak etab.	829,95
6	Merkataritza orokorrean	306,42
7	Bankuak eta finantza erakundeak	1.050,55
8	Etxetresna elektrikoak tailerrak, fabrikak, biltegiak eta dendak	
8a	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 100m ² -ra arte	350,18
8b	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 101-500m ²	787,91
	atez ateko zerbitzua, neurrizkoa	1.685,62
	atez ateko zerbitzua, sortzaile haundia	3.799,12
8c	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 501-1000m ²	1.050,55
	atez ateko zerbitzua, neurrizkoa	1.685,62
	atez ateko zerbitzua, sortzaile haundia	3.799,12
8d	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 1001-3000m ²	1.400,74
	atez ateko zerbitzua, neurrizkoa	1.685,62
	atez ateko zerbitzua, sortzaile haundia	3.799,12



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

8e	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 3001-10000m2 atez ateko zerbitzua, neurrizkoa	1.663,40 1.685,62
	atez ateko zerbitzua, sortzaile handia	3.799,12
8f	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 10000m2 tik gora	1.926,04
9	Garajea-aparkalekua	
9a	5 ibilgailura arte har ditzakeen garajea-aparkalekua	105,21
9b	10 ibilgailura arte har ditzakeen garajea-aparkalekua	127,57
9c	30 ibilgailura arte har ditzakeen garajea-aparkalekua	216,97
9d	30 ibilgailutik gora har ditzakeen garajea-aparkalekua	306,42
10	anbulategiak	
10a	250m2-ra arteko anbulategiak	525,29
10b	250m2 tik gorako anbulategiak	1.523,31
11	Profesionalen bulegoak	409,21
12	Erabiltzen ez diren merkataritza, industria edo zerbitzu jardueretako etxabeak eta bestelako eraikinak, biltegi-moduan erabiltzen ez direnak	131,35
13	EKOIZLE HANDIAK. Erabiltzaileak kontainer bat edo gehiago erabiltzeko aukera baldin badu, kuota hau ezarriko zaio(lokalaren dimentsioa kontuan hartu gabe): 1000 l. edo edukiera baliokidea duen kontainer bakoitzeko	2.626,41
14	Ostalaritza, jatetxe, taberna, pub eta antzeko establezimenduak, dantzalekuak eta joko-aretoak	
14a	25m2-ra arte	350,18
14b	26-50 m2	385,21
14c	51-100 m2	437,73
14d	101-250 m2	525,29
14e	251-500 m2	700,37
14f	500m2-tik gora	787,91
15	Ileapaindegiak, estetika-zentroak, jostunak eta arte-galeriak	306,42
16	ikasketa-akademiak	295,92
17	Kulturako eta dibertimendurako sozietateak	
17a	100m2-ra arte	437,73
17b	100m2 tik gora	525,29
18	Baserriak	81,73

B)	ALDERDI-ESKARIZ, HIRI HONDAKIN SOLIDOAK EDO HORIEN PAREKOAK DIRENAK BILTZEKO, TRATATZEKO EDO APROBETXATZEKO EDO DEUSEZTATZEKO ZERBITZUA	
1	HONDAKIN SOLIDO GELDOEN NEURRIZKO SORTZAILEAK	1.605,34
2	HONDAKIN SOLIIDO GELDOEN SORTZAILE HAUNDIAK	3.618,20

Ehuneko 30eko hobaria ezartzen da auzo konposta egiten dutenentzat.

Titular batek eraikin berean jarduera bat baino gehiago baldin baditu, ordaindu behar duenak kuota handieneko jarduerari dagokion prezioa ordainduko du. Era berean, titular batek eraikin berean jarduera bat baino gehiago baldin baditu eta, aldi berean, etxebizitzarako erabiltzen badu, ordaindu behar duenak kuota handieneko jarduerari edo erabilerari dagokion prezioa ordainduko du.

Se eximiran del pago de la tasa a los caserios que acrediten que uno de sus miembros está de alta en la Seguridad Social Agraria.

Sortzapena. Ezarritako prezioak ordaintzeko beharra hiruhileko bakoitzaren lehen



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

egunean sortuko da, eta hiru hilez behin egingo da likidazioa.

Zaborraren tasan hobari berria ezartzen da familia-unitateko kideen eta errentaren arabera:

Hileroko soldata maila, Profesioarteko Gutxieneko Soldatarekin konparatuz								
	PGS edo <	PGS + %10	PGS + %20	PGS + %30	PGS + %40	PGS + %50	PGS + %60	PGS + %75
2	90%	75%	50%	25%	25%	-	-	-
3	90%	90%	75%	50%	25%	-	-	-
4	95%	90%	90%	75%	50%	25%	25%	25%
5	95%	90%	90%	90%	75%	50%	25%	25%
6	95%	90%	90%	90%	90%	75%	50%	50%
7	95%	90%	90%	90%	90%	90%	75%	75%

Gaitasun ekonomikoa balioztatzeko, aldagai hauek hartuko dira kontuan:

a) ERRENTA

Familia-unitateak guztira dituen sarrerak hartuko ditugu errentatzat:

Lan-etekinak, baita pentsioak eta gizarte-aurreikuspenetako prestazioak ere, haien erregimena edozein delarik ere.

Higigarrien eta higiezinen kapitalaren etekinak.

Enpresa- edo lanbide-jardueren etekinak.

(Balio horiek kalkulatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarako ezarritako arauak jarraituko dira).

b) ONDAREA

Higigarrien eta higiezinen guztizko kapitala hartuko dugu ondaretzat.

Bizikidetza unitatea osatzen duten pertsonen ondare guztiaren kopuruak ondorengo mugak gaindituko balitu ez litzaioke hobaririk ezarriko tasari

Goi muga hauek Dirusarrerak Bermatzeko Errentaren arabekoak dira.

DBE ren GEHIENEZKO URTEKO KOPURUA 2016rako	
B.U.aren pertsona kopurua	OROKORRA €/ Urteko gehienez)*4
1	30.027,840
2	38.558,880
3	42.653,760

Kopuru hauek 2017rako Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailaren ebazpenak DEBaren 2017ko kopuruak onartzen dituenean eguneratuko dira.

(Balio horiek kalkulatzeko, Ondarearen gaineko Zergarako ezarritako arauak jarraituko dira).

Higigarrien kapitala: kontu korronteko eta eperako gordailuak, inbertsio-fondoak eta pentsio-fondoak, balore higigarriak, bizi-aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko errentak, arte-objektuak, antzinatasuna, bitxiak eta baliozko objektuak.

Higiezinen kapitala: landa- eta hiri-ondasun guztiak.

Ohiko etxebizitza: ohiko bizileku gisa finkatuta dagoen titulartasuneko etxebizitza.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

c) BIZIKIDETZA-UNITATEKO PERTSONEN KOPURUA:

Bizikidetza-unitatea: ohiko bizilekuan batera bizi diren pertsona guztiek osatzen dute.

Gaitasun ekonomikoaren gaineko datuak faltsetzeak edo ezkutatzek zerbitzuak eten ahal izango ditu aldi baterako edo betiko.

Subjektu pasiboak hobari hauek edukitzeko eskubidea izateko Urtarrilean eskatu beharko dio hobaria Udalari, eta eskaerarekin batera bizikidetza unitatea osatzen duten pertsonen errenta eta ondarea ziurtatzen dituen agiriak ekarri beharko ditu.

Hobaria hau ezartzeko garaian kontuan hartuko da subjektu pasiboaren egoera urtarrilaren batean.

Hobaria onartzeko eskatzaileak eta familia unitateko kideak ez dute zorrik eduki beharko udal zerga-bilketan.

SEI.- Aldaketak sartzen dira tasa arautzen duen Baztartxo aretoan Udal zerbitzuak emateko edo udal jarduerak egiteo prezio publikoak arautze dituen Ordenantza fiskalaren eranskinean, eta honela geratzen da idatzita:

ZERBITZUAK EMAN EDO JARDUERAK BURUTZEA BAZTARTXO ARETOAN

ZINEMA

	PREZIO ARRUNTA	PREZIOA FAMILIA UGARIENTZAT
Sarrera orokorra	5€	4€
Ikusleren eguna, haur zinema eta zineforum	3€	2,50€

ZUZENeko IKUSKIZUNAK

	PREZIO ARRUNTA	PREZIOA FAMILIA UGARIENTZAT
Profesionalen ikuskizunetarako, amateurren ikuskizunetarako edo hirugarrenek antolatutako ikuskizunetarako sarreren prezioa, kopuru hauen artean:	0-30€	0-30€
10 sarrerako bonoa	30€	30€

Bonoaren erabilpena pertsonala da eta ezin da eskualdatu.

Erabilpen data: 2017/12/31 arte

Ezingo da umeen zinema emanaldietan erabili

Familia ugarien prezio murriztua ezartzeko, familia ugariko indarrean dagoen titulua aurkeztu beharko



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

da.

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 16.1. artikuluan xedatutakoa betez, bitarteko ofizial honetan, Udaleko iragarki-taulan eta Gipuzkoan zabalkunde handieneko egunkarian iragarkiak argitaratuta, aipatutako artikuluan, 2. idatz-zatian, adierazitakoaren arabera, eta arau hauei jarraituz:

a) Agiriak erakusgai dauden lekua: Udaletxeko Kontuhartzailtzan.

b) Agiriak aztertu eta, hala badagokio, erreklamazioak egiteko epea: 30 lanegun, iragarki hau azken aldiz argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

Honako hauek egin ditzakete erreklamazioak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluan adierazitakoak.

Erreklamazioak aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorra. Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako lekuetan ere aurkez daitezke erreklamazioak.

Erreklamazioen hartzailea: Udalbatza osoa.

HIRUGARRENA: Informazio hau jendaurrean jartzeko epea amaitu eta erreklamaziorik edo oharrik egin ez bada, behin betiko bilakatuko dira hartutako erabakiak, erabaki gehiagoren beharrik gabe.

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Miguel Angel Bastida, Sonia Vázquez, Maitane Unanue

Kontrako botoak: Ainara Goenaga, Jose Joakin Etxaniz

Azkoitia, 2016ko urriaren 20an

Kontu-Hartzaileak